



Ebazpena, Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariarena, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntza profesioaletako goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probak arautzen dituen eta ziklo horietara sartzeko 2024-2025 ikasturterako probetarako deialdia egiten duena.

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatutako Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 52.2. artikuluan xedatzen denez, Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako zikloetan sartzeko beharrezkoa da Batxiler-titulua edo Lanbide Heziketako teknikariarena izatea eta, gainera, berariazko sarbide-proba bat egitea, egiaztatze ikasleak badituela kasuan kasuko ikasketak probetxuz egiteko beharrezko gaitasunak. Era berean, Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikariaren titulua dutenek ere egin ahal izango dituzte irakaskuntza horiek. Dena den, nahiz eta titulu horiek ez izan, baldin eta adinarekin loturiko baldintza batzuk betetzen badituzte, ikasleek aukera dute ikasketa horiek egiteko, betiere, sarbide-proba gainditzen badute.

Bestalde, maiatzaren 4ko 596/2007 Errege Dekretuak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duenak, V. kapituluak, horrelako ikasketak egiteko eskakizun gain, honakoak ere ezartzen ditu: berariazko proba egiteko salbuespenak, eskakizun akademikoak betetzen ez dituzten ikasleentzako probak, proben arauketa eta baliozkotasuna, eta tokiak erreserbatzeko sistema.

Azkenik, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatutako 2/2006 Lege Organikoko 52.5. artikulua eta 596/2007 Errege Dekretuko 15.4. eta 17.1. artikuluek Hezkuntza Sailari egokitzen diote horrelako probak arautzeko eskumena. Horregatik, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Xedea eta aplikazio-eremua.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntza profesioaletako goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko prozesua arautzea da ebazpen honen xedea, baita Euskal Autonomia Erkidegoan heziketa-ziklo horietan sartzeko 2024 urteko proba egiteko deialdia egitea ere.

Bigarrena. Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntza profesioaletako goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko eskakizunak.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko Ikasketa Profesioaletako goi-mailako graduan sartzeko, beharrezkoa izango da Batxilergoko edo Lanbide Heziketako teknikariaren titulua izatea, eta berariazko proba bat gainditzea, kasuan kasuko irakaskuntzak probetxuz egiteko beharrezkoak diren gaitasunak frogatzeko.

Era berean, Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikariaren titulua dutenek ere egin ahal izango dituzte ikasketa horiek, proba hori egin beharrik gabe.

Hirugarrena. Ikasleek berariazko proba egiteko bete beharreko eskakizun akademikoak.





Izena emateko epean honako baldintzaren bat betetzen duten ikasleak gin ahal izango dute Arte Plastikoetako eta Diseinuko Ikasketa Profesionaletako Goi Mailako Heziketa Zikloetara sartzeko berariazko proba:

- 1.- Batxilergoko titulua izatea.
- 2.- Lanbide Heziketako irakaskuntzetako teknikari-titulua izatea.
- 3.- Unibertsitateko titulazioa edo baliokidea izatea.
- 4.- 25 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- 5.- Arte Plastikoetako eta Diseinuko Ikasketa Profesionaletan sartzeko ezarritako baldintza akademikoen ordezkoko heldutasun-proba gainditu izana.
- 6.- Lanbide Heziketako goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probaren zati komuna gainditu izana.

Laugarrena. Berariazko proba egiteko salbuespenak.

1. Honako tituluetakoa bat dutenek ez dute berariazko proba egin beharrik izango Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzetako goi-mailako zikloetan sartzeko:
 - a) Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikariaren edo goi-mailako teknikariaren titulua.
 - b) Batxilergoko titulua, arte-modalitatea, edo Batxilergo artistiko esperimentaleko titulua.
 - c) Goi-mailako arte-irakaskuntzen edo unibertsitate-irakaskuntzen titulazio ofiziala, arte-arloko diziplina hauetakoren batean: arte plastikoak, kultura-ondasunen diseinua, kontserbazioa eta zaharberritzea, arte ederrak edo arkitektura.
2. Hezkuntza Sailak salbuetsi egin ditzake honako bi baldintzak betetzen dituzten ikasleak: batetik, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzari buruzkoak, 52.1. eta 52.2. artikuluetan ezartzen dituen eskakizun akademikoak betetzea eta, bestetik, gutxienez urtebeteko lan-esperientzia egiaztatzea kasuan kasuko goi-mailako heziketa-zikloko gaitasun profisionalekin zuzeneko lotura duen lan batean. Horretarako, ikasleek honako dokumentuak aurkeztuko dituzte gutxienez:

Lan-esperientzia edo -bizitza egiaztatzen duen ziurtagiria, non berariaz jasoko baitira kontratuaren iraupena, egindako jarduera eta jarduera hori egin den aldia. Norberaren konturako langileen kasuan, zergapekoen erroldan alta eman izanaren ziurtagiria.

Salbuespena berariazko proban izena emateko eskabidean bertan eskatuko da, eta eskatutako salbuespena justifikatzeko agiriak aurkeztuko dira eskabidearekin batera.

Bosgarrena. Sarbide-proba egiteko izena ematea: prezio publikoak, tokia eta epeak.

1. Proba egin behar duten ikasleek bakarrik emango dute izena Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko proban, baita lan-esperientzia dela-eta salbuespena eskatzen dutenek ere.
2. Sarbide-probarako izen-ematea on-line egingo da Ikasgunea atarian.
3. Izena emateko epea:



Ohiko deialdia: 2024eko maiatzaren 1etik 17ra eguerdiko 13:00ak arte.

4. Proba egiteko eguna eta tokia:

- Eguna: 2024eko maiatzaren 25an, 14:30etan.
- Tokia:

*EASD I D arte AGDE ikastetxea
Betoñuko atea 23 (Betoñuko komentu zaharra)
Vitoria- Gasteiz*

5. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko maiatzaren 16ko Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituen Agindua hirugarrenez aldatzen duenak xedatzen duenaren arabera, deialdian parte hartzen duten izangaiek 28,02 € ordaindu beharko dituzte, prezio publikoari dagozkionak, sarbide-proba gisa.

6. Proba euskaraz edo gazteleraz egin ahalko da. Ikasleek izena emateko eskabidean adieraziko dute zer hizkuntzatan egin nahi duten.

7. Proba egiteko esparrura sartzen den ikasleak bere nortasuna egiaztatzen duen agiri bat aurkeztu beharko du (NAN, pasaporte, bizileku-baimena...), eta proba egiteko beharrezkoak diren materialak eraman beharko ditu.

8. Bere webgunean, proba egiteko egutegia eta probaren behin-behineko eta behin betiko emaitzak argitaratuko ditu EASD I D arte AGDE ikastetxeak, baita probari buruzko beste edozein datu esanguratsu ere.

9. Datu pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoarekin bat, eskabidea betetzeak berekin dakar interesdunak baimena ematea bertan adierazitako datuak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko fitxategi informatizatuetan gordetzeko. Lege berarekin bat, datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eta haien aurka egiteko eskubideak erabil ditzake interesdunak, Hezkuntza Saileko Ikastetxe eta Plangintzako zuzendaritzaren aurrean.

Seigarrena. – Onarpen-prozesuan izena ematea

Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntza profesionaletako goi-mailako heziketa-zikloetarako berariazko sarbide-proban izena ematea eta EAeko ikastetxeetan plaza eskatzea bi prozesu desberdin eta independente dira.

Berariazko sarbide-probarako izen-ematearekin batera, izangaiak onarpena (plaza) eskatu beharko du bere interesekoa den ikastetxean, Ikasgunea komunikazio-atarian. Izangai bat, titulazioa dela-eta, berariazko sarbide-proba egitetik salbuetsita badago, onarpen-prozesuan izena emateko eskabidea formalizatu beharko du, eta bertan adierazi beharko du zer ikasketa egin nahi dituen eta zein ikastetxetan, lehentasun-hurrenkeraren arabera.

Zazpigarrena. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek denbora eta bitarteko materialak egokitzeko eska dezakete, gainerako ikasleen aukera berak izateko. Eskabideak dakarren tarte ez bada nahikoa beharrezko egokitzapena adierazteko, orri atxiki batean azalduko dute.

Zortzigarrena. Sarbide-probaren egitura.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntza profesionaletako goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko berariazko proba lau fasetan banatutako ariketa bat izango da.

1. fasea: Gai bat proposatzea (denbora: 15 min)



Gai bat emango da, eta horren inguruan prestatutako gutxienez bi lan grafiko eta gehienez sei aurkeztu beharko dira azken arte gisa.

Gai edo testu iradokitzaile bat emango da: hitz bat, esaldi bat, nanokontakizun bat edo testu luzexeago bat.

Nahi den teknika aukeratu ahal izango da eta ondorengo puntuan deskribatzen da.

2. fasea: Lan-garaia (denbora: 2 ordu)

Denbora honetan, bozetoak eta/edo argazki-rallyko argazkiak egingo dira.

Teknika aukera librekoa izango da, betiere kategoria hauen barruan:

- Eskuzko teknika: marrazkia teknika lehor edo hezeekin eta/edo collage-a.
- Teknika digitala: irudi eta/edo collage digitala.
- Argazki-rallya: inguruan argazkiak egitea 2 orduz

Izangaiek material hau eraman beharko dute, erabiliko duten teknikaren arabera:

- Eskuzko teknika: teknika lehor eta hezeetarako materialak, guraizeak, barra-kola eta kuterra.
- Teknika digitala: marrazteko gailuak eta softwarea.
- Argazki-rallya: argazkiak ateratzen dituen gailu bat (argazki-kamera, mugikorra, tableta...), ordenagailu eramangarri bat gero argazkiak ikusteko eta/edo editatzeko eta behar diren konexio-kable guztiak.

Emango den material bakarra:

- Papera.
- Collage-a egiteko material grafikoa.

3. fasea: Entregatu beharreko materiala aukeratzea eta akabera

Azken proposamenak aukeratu eta landuko dira; gutxienez bat, irudi konplexu eta landuen kasuan, adibidez, eta, gehienez sei, argazki-serie bat aurkezten den kasuan, esate baterako (halako kasuetan, gutxienez bi entregatu beharko dira).

Euskarri hauetan entregatu beharko dira:

- Eskuzko teknikak: emandako formatuko paperean.
- Teknika digitalak: irudi digitalak PDFn; argazki-rally-a JPEGn.
- Bozetoak ere entregatuko dira, dokumentazio gehigarri gisa.

Ebaluazio-irizpideak:

- Narratzeko gaitasuna – storytelling-a (3 puntu).
- Sormena eta autonomia (3 puntu).
- Egikera eta akabera (puntu bat).

4. fasea: Deskribapen- eta justifikazio-testua

Proposamenaren aukeraketa, garapena eta justifikazioa deskribatuko eta argudiatuko da 10 lerrotan.

Ebaluazio-irizpideak:

- Maila narratibo-deskribatzailea (puntu bat).
- Argudiatzeko gaitasuna (puntu bat).
- Laburtzeko gaitasuna (puntu bat).

3. eta 4. faseetarako, guztira 2 orduko denbora egongo da. Fase horiek derrigor gauzatu beharko dira. Izangairen batek bi fase horietakoren bat egiten ez badu, bere proba ez da zuzenduko.



Bederatzigarrena. Sarbide-probaren ebaluazioa.

1. Ikastetxe eta Plangintzako Zuzendaritzako arduradunak izendatuko du epaimahaia, eta epaimahaiburuak eta lau epaimahaikidek osatuko dute. Lau epaimahaikideak irakasleak izango dira, eta bi Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegokoak izan ahalko dira.
2. Epaimahaikide izateko, proba osatzen duten ariketekin loturiko espezialitateetan gaitasun profesionala duten irakasleak proposatu ahalko ditu Ikastetxe eta Plangintzako Zuzendaritzak.
3. Epaimahaiak laguntza eskatu ahalko die egoki deritzen aholkulariei.
4. Honakoak izango dira epaimahaiaren egitekoak:
 - a) Probak prestatzeko eta egiteko prozesua antolatzea. Probak bakarrak izango dira Euskal Autonomia Erkidego osoan.
 - b) Lan-esperientzia dela-eta aurkezten diren salbuespen-eskaerak aztertzea eta, aurkezten diren dokumentuetan oinarrituz, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari salbuespen bakoitzari buruzko iritzia ematea, hark ebatz dezan. Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak ebazpenaren berri emango dio epaimahaiari.
 - c) Ebaluazio-saioak antolatzea eta aktak egitea.
 - d) Aurkezten diren erreklamazioak ebaztea.
 - e) Sarbide-probak behar bezala egiten direla eta indarrean dagoen legedia betetzen dela zaintzea.
5. Honakoak ebaluatuko ditu epaimahaiak: ideiak zehazteko eta egokiro azaltzeko gaitasuna, irudikatze eta komunikatzeko gaitasuna, eta sen artistikoa eta sentsibilitatea.

Hamargarrena. Sarbide-probetako emaitzen argitalpena eta erreklamazioak.

1. Behin-behineko kalifikazioak EASD I D arte AGDE ikastetxearen webgunean argitaratuko dira 2024eko ekainaren 5an, goizeko 11:00etan.
2. Irakasleak behin-behineko kalifikazioak ateratzen diren egunetik ekainaren 7ko goizeko 11:00ak arte egin ahal izango du proban ateratako kalifikazioaren erreklamazioa. Erreklamazio hori epaimahaiburuari egingo zaio, EASD I D arte AGDE ikastetxeko idazkaritzak emango duen eredia erabiliz edo info@idarte.eus helbide elektronikora mezu bat bidaliz, eta behin betiko kalifikazioak onartzearekin batera ebatziko da.
3. Behin-betiko kalifikazioak EASD I D arte AGDE ikastetxearen webgunean argitaratuko dira 2024eko ekainaren 7an, 13:00etan.
4. Behin betiko kalifikazioaren kontra, gorako errekurtsua jarri ahal izango zaio Ikastetxe eta Plangintzako Zuzendaritzako arduradunari, kalifikazio hori argitaratu eta hilabeteko epean.

Hamaikagarrena. Sarbide-probaren balioa.

1. Sarbide-proba gainditzeak Estatu osoan izango du balioa, eta, indarrean dagoen legediarekin bat, kasuan kasuko heziketa-zikloan matrikulatzeko eskubidea emango du, betiere, ikastetxeetan plazarik badago.
2. Arte Plastikoetako eta Diseinuko heziketa-zikloetan sartzeko proba gainditzeak Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzak egiteko eskubidea baino ez du ematen, eta



ez da inolako titulu akademikoren baliokide, ezta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako arlo bat edo Batxilergoko irakasgai bat gainditzearen baliokide ere.

Hamabigarrena. Probaren ziurtagiria.

Proba gainditzen duten ikasleek ziurtagiria eskatu ahaliko dute Vitoria-Gasteizko EASD I D arte AGDE ikastetxean.

Hamahirugarrena. Ikastetxe publikoetako plazen esleipena.

1. Ohiko deialdiaren barruan Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako heziketa-zikloetan izena emateko epea amaitutakoan, ikastetxe publikoek plaza libreak esleituko dituzte, erreserbatzeko diren plazen ehuneko hauek kontuan hartuta:

a) Proba egin behar ez dutela-eta zuzenean sartzeko diren ikasleentzat plazen % 60 erreserbatuko dute.

b) Proba egin behar duten ikasleentzat plazen % 34 erreserbatuko dute.

c) Pertsona Desgaituen Eskubideei eta Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoa betez, % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten ikasleentzat plazen % 3 erreserbatuko dira, betiere, sartzeko ezarrita dauden eskakizunak betetzen badituzte. Horretarako, desgaitasuna duten ikasleek desgaitasun-mailaren kalifikazioa eta aitortpena adierazten dituen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

d) Uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuak, goi-mailako eta erremindu handiko kirolariei buruzkoak, 9.4. artikuluan xedatzen duenarekin bat, horrelako kirolariak direla egiaztatzen dutenentzat plazen %3 erreserbatuko dute, betiere, dagozkion eskakizun akademikoak betetzen badituzte eta berariazko proba gainditzen badute.

Eskaera erreserbatutako plazen kopurua baino handiagoa bada, ikasleen lehentasun-ordena egiteko zerrenda bakarra egingo da, berariazko sarbide-probako kalifikazioa edo, salbuetsita dagoela-eta zuzenean sartzeko bada, aurkeztu den tituluaren batezbesteko nota kontuan hartuz.

2.- c) eta d) ataletan zehazten diren erreserba-kupoetan bete gabeko plazak b) ataleko erreserba-kupora gehituko dira. Halaber, b) atalean zehazten den erreserba-kupoan bete gabeko plaza a) ataleko erreserba-kupora gehituko dira, eta alderantziz.

3. Ikasleen lehentasun-hurrenkera honako hau izango da sartzeko modalitate bakoitzeko:

a) Salbuetsita daudela-eta zuzenean sartzeko diren ikasleak:

Ikasleak elkartu eta antolatu egingo dituzte ikastetxe publikoek, ebazpen honetako 4. artikuluko salbuespen moten arabera. Ikasleen kopurua plazena baino handiagoa bada, honako irizpideak hartuko dira kontuan lehentasun-hurrenkera finkatzeko:

1. Kasuan kasuko ikasketekin loturiko lanbide-arlo baten barruan Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikari-titulua edo Arte-modalitateko Batxiler-titulua edo Arte Batxilergo esperimentaleko titulua duten ikasleak. Alegatzen duten tituluaren batez besteko notaren arabera ordenatuko dira.

2. Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako titulua edo Kultura Ondasunen Zaintza eta Zaharberrikuntzako goi-mailako titulua duten ikasleak. Alegatzen duten tituluaren batez besteko notaren arabera ordenatuko dira.

3. Urtebeteko lan-esperientzia edo Unibertsitateko gradu bat edo baliokidetzat jotzen den titulu bat duten ikasleak. Lehentasuna izango dute lan-esperientzia alegatzeagatik salbuetsita dauden ikasleek. Unibertsitate-titulua duten ikasleak, era berean, alegatutako tituluaren batez besteko notaren arabera ordenatuko dira.

b) Berriazko probaren bidez sartzen diren ikasleak

Berriazko sarbide-proban lortzen duten kalifikazioaren arabera ordenatuko dituzte ikastetxe publikoek.

4. Artikulu honetako 1. eta 2. puntuetan deskribatutako banaketa egin ondoren, oraindik ere plaza hutsak geratzen badira, lehentasun-hurrenkera honen arabera esleituko dira:

1. Berriazko proba Euskal Autonomia Erkidegoan egin duten eskatzaileek lehentasuna izango dute
2. Berriazko proba deialdiaren ikasturte berean beste autonomia-erkidego batean gainditu duten ikasleak.
3. Berriazko proba aurreko deialdiaren batean beste autonomia-erkidego batean gainditu duten ikasleak.

Hamalaugarrena.- Ezohiko deialdia.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntza profesionaletako goi-mailako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeren batean plaza hutsik balego, berriazko sarbide-probak egingo dira uztailean, eta proba horretarako ebazpen honetan finkatutako antolaketa, garapena, ebaluazioa, eta ikasleak onartzeko prozedura mantenduko dira.

Hamabosgarrena.- Ezohiko deialdiaren egutegia.

1. Izena emateko epea:

Ezohiko deialdia: 2024eko ekainaren 17tik ekainaren 21Eko eguerdiko 13:00ak arte.

2. Izena emateko prozedura:

Sarbide-probarako izen-ematea on- line egingo da Ikasgunea atarian.

3. Agiriak nora eramán:

Agiriak telematikoki aurkeztuko dira

4. Ezohiko proba egiteko eguna.

2024eko ekainaren 27a, goizeko 09:00etan.

5. Proba egiteko tokia:

*EASD I D arte AGDE ikastetxea
Betoñuko atea 23 (Betoñuko komentu zaharra)
Vitoria- Gasteiz*

6.- Probaren emaitzak argitara ematea eta erreklamazioak egitea.

a) Behin-behineko kalifikazioak EASD I D arte AGDE ikastetxearen webgunean argitaratuko dira 2024eko uztailaren 4an, 11:00etan.

b) Ikasleak behin-behineko kalifikazioak ateratzen diren egunetik uztailaren 8ko goizeko 11:00ak arte egin ahal izango du proban ateratako kalifikazioaren erreklamazioa. Erreklamazio hori epaimahaiburuari egingo zaio, EASD I D arte AGDEko idazkaritzak emango duen eredu erabiliz edo info@idarte.eus helbide elektronikora mezu bat bidaliz, eta behin betiko kalifikazioak onartzearekin batera ebartziko da.



c) Behin betiko kalifikazioak EASD I D arte AGDE ikastetxearen webgunean argitaratuko dira 2024eko uztailaren 8an, 13:00etan.

d) Behin betiko kalifikazioaren kontra, gorako errekurtsua jarri ahal izango zaio Ikastetxe eta Plangintzako Zuzendaritzako arduradunari, kalifikazio hori argitaratu eta hilabeteko epean.

Hamaseigarrena.- Ikastetxe eta Plangintzako Zuzendaritzak baimena du ebazpen honek xedatzen duena garatzeko beharrezko arauak emateko.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan

Eugenio Jiménez Ibáñez

IKASTETXE ETA PLANGINTZAKO ZUZENDARIA